


Betidanik entzun izan dugu, bai familiartekoen aldetik edo eta pediatren aldetik ere, zein hilabetetan edo zein garaitan gure haurra postura honetan edo bestean egotea lortu behar duen. Txosten hau, iritzi zientifiko eta behaketa esperientzietatik abiatutako ikerketak oinarrian dituela, gure txikitxoak hezteko beste modu bat egon badagoela erakustera dator. Gure helburua, gure jarreran eta txikitxoekin dugun esku-hartzeaz ohartzea besterik ez da, hau da, egiten dugunaz eta hau nola egiten dugun kontzientzia hartzea.

Txosten honetan bi interbentzio modu komentatuko ditugu;

1. Helduaren esku-hartze "irakaslea" edo "aldakorra".
2. Mugimendurako haurren berezko gaitasun naturala.



Aditu askok eta askok egin dituzten dokumentu eta ikerketetan askotan esaten da haurrak ez duela mugimendurako berezko gaitasuna eta horretan helduaren rol irakaslea garrantzia duela. Baina horien artean, Emmi Pikler pediatra ospetsuak ere



egin zituen ikerketak Budapesteko Loczy Institutuan. Piklerren teoriak, gaur egun indarrean jarraitzen dute eta haur hezkuntzako lehen ziklo honetan jarduten garenok, indarra eman nahi diogu kontzeptu honi. Haurrak helduak behar ditu, erreferenteak gara, atxikimendua behar dute seguru sentitzeko, baina ez irakasle paper horretan baizik eta laguntzaile paperean, hau da, bizitza den bidai honetan lagun gaituzte.


Argi dago, haurrek ikasketarako gaitasun naturala dutela. Nola ikasi genuen ba suak erretzen zuela? Etxean esaten ziguten bai erretzen zuela, baina esperimendu arte... ez genuen jakin izan benetan erretzea zer zen. Nola dakigu korrika kontrolik gabe egitekotan eroriko garela? Esaten ziguten bai eroriko ginela, baina erori arte ez genuen egoera horretan esperientziarik. Zer esan nahi dugu honekin? Egoerak, gauzak, objektuak, gure kabuz esperimendu behar ditugula, eta ez edonork esaten edo eragiten digulako, aita edo ama bada ere.




Idea hau erreferentziatzat hartuta ekin diezaigun bideari... Gauzak, egoerak... gure kabuz esperimendu behar ditugula argi badugu, zergatik behartu behar dugu haur bat kontrolatzen ez zuen jarrera-egoera batean egotera? Ez da ba gai bere kaxa ikasteko? betiere, inguru egoki eta aberats bat

eskaintzen badiogu. Haurra babestua sentitu behar da, seguru sentitu behar da, baina beregan sinesten dugulako, gauzak garatzeko gai dela argi dugulako eta ez "paratxokez" josten ditugulako (kuxinak inguruan erortzekoa bada minik ez hartzeko, taka-takak...).

Pentsatu al duzu zer gertatzen da haur bat kontrolatzen ez duen postura batean egotera behartzen dugunean? Egoera hau ematen denean, kontziente izan behar dugu postura batean finkatzen dugula, leku batean iltzatuta dagoela, ezin duela bere kabuz mugitu ez eta posturaz aldatu. Gainera horrela egotera behartu dugunean eta biziraupena dela eta, postura hori kontrolatzen duenean, beste batean egotera behartzen dugu, eta berriro ere mugatu egiten dugu.



Bestalde, arazo fisikoak ere sortu ditzakegu esku-hartze honekin; burua mantentzen ez duen haur bat postura horretan egotera behartzen dugunean, burua sorbalden artean sartuta geratzen da eta ez lepoak behar duen luzapenarekin. Muskuluak ez dira gai pisu hori mantentzeko, ez baitaude prest horretarako, entrenatzea behar dute. Zer esanik ez esertzen ditugunean, bizkarra makurtu egiten da (lordosia), gorputzaren pisua eta oreka mantendu ahal izateko.



Azken finean esan dezakegu, haurren bizitzaren lehen urtea, immobilizatua dagoela, kontrolatzen ez dituen postura horiek mantendu ahal izateko, eta gainera, helduaren beharra du edozertarako, urrutiago joan zaion objektu hori hartzeko edo posturaz aldatzeko. Honek segurtasun eza eragiten du eta etorkizunean, beldurrez eta ziurtasun gabeziaz jositako seme- alabak izango ditugula. Aurretik esan bezala, guzti hau bizitzaren lehen urtean gertatzen da, horrenbesteko garrantzia duen lehen urte hori, non lehen lotura afektiboak lantzen diren, non edozer gauzak, egoerak, baldintzak... gure bizi osoan eragina izango duten. Beraz entzun ditzagun gure txikitxoak eta eskatu diezaiegun bizitzako bidean beraiekin joateko baimena.

Jarraian Emmi Pikler pediarraren ikerketetatik ateratako mugimendu eskemak datoz. Piklerrek beti esan zuen mugimendu askatasuna duen haur bat, fase guztietatik igarotzen dela.

Tanto desde las familias como por parte de los pediatras siempre hemos oído, en que mes o en qué momento nuestro hijo y/o nuestra hija ha de conseguir estar en una postura o en otra. Este informe, basado en opiniones científicas y en investigaciones realizadas a partir de observaciones de experiencias, nos muestra que hay otra manera de criar a nuestras criaturas. Nuestro objetivo es simplemente fijarnos en nuestra actitud y en la intervención que tenemos con nuestra criatura, es decir, tomar conciencia de lo que hacemos y de cómo lo hacemos.

En este informe comentaremos dos modos de intervención:

1. Intervención “enseñante” o “modificadora” del adulto.
2. Capacidad natural innata de las criaturas para el movimiento.

En documentos e investigaciones realizadas por múltiples expertos y expertas se dice que las criaturas no tienen una capacidad innata para el movimiento y que aquí el rol enseñante de la persona adulta tiene mucha importancia. Pero entre ellos y ellas, la famosa pediatra Emmi Pikler también realizó investigaciones en el instituto Loczy de Budapest. Hoy en día las teorías de Pikler siguen en vigor y los y las que nos movemos en este primer ciclo de educación infantil, queremos reforzar este concepto. Los niños y las niñas necesitan al adulto, somos su referente, para sentirse seguros y seguras necesitan apego, pero no en el papel de enseñante sino en el papel de compañero y/o compañera, es decir, que vamos con ellos y ellas en este viaje que es la vida.

Está claro, que los niños y las niñas tienen una capacidad natural para aprender. ¿Cómo aprendimos que el fuego quemaba? En casa ya nos lo decían pero hasta que no lo experimentamos... no supimos verdaderamente lo que era.

¿Cómo sabemos que en caso de correr descontroladamente, nos caeremos?, ya nos decían que nos caeríamos pero hasta caernos no teníamos experiencias en ese hecho. ¿Qué queremos decir con esto? Que las situaciones, cosas, objetos tenemos que experimentarlas nosotras y nosotros mismos, y no porque nadie nos lo diga o nos lo haga aunque sean aita o ama.

Teniendo como referencia esta idea comencemos.... Si tenemos claro que las situaciones, cosas... tenemos que experimentarlas por nosotros y nosotras mismas, ¿por qué obligamos a una criatura a estar en una situación postural que no controla? ¿No es capaz de aprender por sí misma?, siempre ofreciéndole un entorno adecuado y rico. La criatura tiene que sentirse protegida, tiene que sentirse segura, pero porque verdaderamente creemos en ella, porque tenemos claro que es capaz de desarrollar situaciones por sí misma, y no porque le rodeemos de “parachoques” (cojines alrededor para que si se cae no se haga daño, taca-tacas...).

¿Te has preguntado alguna vez que le pasa a una criatura a la que obligamos a estar en una postura que no controla? Cuando se da esta situación tenemos que ser conscientes que fijamos a la criatura en una postura, que esta “clavada” en un sitio, que no se puede mover por sí misma y ni cambiar de postura. Encima cuando la hemos obligado a estar en esa postura y

por supervivencia a conseguido controlarla, la obligamos a estar en otra que no controla y de nuevo le limitamos.

Por otro lado, con este tipo de intervención podemos provocar problemas físicos; cuando a una criatura que no controla la cabeza le obligamos a sujetarla, esta se encaja entre los hombros no permitiendo al cuello la extensión que necesita. Los músculos no son capaces de mantener ese peso, ya que no están preparados para ello todavía, necesitan entrenamiento. Y que no decir, de cuando les sentamos, la espalda se tuerce (lordosis), para poder mantener el peso y el equilibrio.

Podemos decir que el primer año de vida de las criaturas están inmovilizadas, intentando mantener las posturas que no controlan, necesitando a la persona adulta para cualquier cosa, para coger un objeto al que no llega, o para cambiar de posición. Mirando al futuro esta situación provoca inseguridad, tendremos hijos e hijas llenos y llenas de miedos y temores. Como ya hemos dicho anteriormente todo esto pasa durante el primer año de vida, ese año que es tan importante, donde se trabajan los primeros vínculos afectivos, donde cualquier cosa, situación, condición... influirá durante toda nuestra vida. Por lo tanto, escuchemos a nuestras criaturas y pidámosles permiso para ir con ellas en el camino de la vida.

A continuación, tenéis los esquemas de movimiento extraídos de las investigaciones de la pediatra Emmi Pikler. Pikler siempre decía que la criatura que de verdad tiene una libertad de movimientos, transita por todas las fases.

MUGIMENDU HANDIEN GARAPENA

Desarrollo de los movimientos grandes


1. FASEA: BURUZ GORA ETZANDATIK, BURUZ BERA JARTZERA ETA BERE GORPUTZARI BUELTAK EMATEA.

1ª Fase: Desde la posición de tumbado hacia arriba hasta volverse sobre el vientre; vueltas repetidas, rodar.




2. FASEA: NARRASKETAN IBILTZETIK, KATUKA IBILTZERA.

2ª Fase: Desde reptar hasta el gateo.




3. FASEA: ESERITA EGOTERA.

3ª Fase: Hacia la posición sentada.




4. FASEA: ZUTIK EGOTERA.

4ª Fase: Hacia la posición de pie.



5. FASEA: ASKATASUNEZ ZUTITZETIK ETA UZKURTZETIK, OINEZ IBILTZERA.

5ª Fase: Desde ponerse en pie libremente y agacharse, hasta la marcha estable.



Emmi Piklerren ikerketetan, haurren nahian oinarritutako mugimendu handien garapenaz aparte, beste 20 mugimendu eskema desberdintzen ditu. Hausnarketa hauetan, ez da inoiz haurren adina aipatzen, haur bakoitzak bere garapen erritmoa daukalako eta ezin direlako denak zaku berean sartu. Mugimenduen menperatze prozesu honetan banakotasunak garrantzia handia dauka eta horregatik aipatu nahi dugu hau; esaten al digu norbaitek noiz maitemindu behar dugun lehen aldiz, noiz izan behar ditugun seme-alabak (izatekotan)? Ez ditugu bada, bakoitzaren bizi helburuak betetzen, hau guztia epe konkretu batean egiten ez badugu? Arazoak al ditu 40 urterekin aita edo ama izatea erabaki duen pertsonak? Patologiaren bat al dauka 15 urterekin sekula maitemindu ez den pertsona batek? Argi dago erantzuna zein den, ez? Ba... gure bizitzako gorabeherak gure modura bizitzeko libreak bagara, zergatik ez mugimenduaren fase ezberdinak garatzeko?

Gure papera behatzailea izanen da eta laguntzailea (ez mugitzen laguntzeko baizik eta bidean lagun izateko).

En las investigaciones de Emmi Pikler, además del desarrollo de los grandes movimientos a partir de la iniciativa de las criaturas, se diferencian otros 20 esquemas de movimiento. En estas reflexiones, nunca se cita la edad de las criaturas, dado que cada cual, tiene su propio ritmo y no se puede meter a todas en el mismo saco. En este proceso de consolidación de los movimientos el concepto de individualidad tiene mucha importancia y por eso queremos subrayarlo; ¿Acaso alguien nos dice cuando tenemos que enamorarnos por primera vez, o cuándo tenemos que tener hijos (si es que los tenemos)? Es que, ¿ No cumplimos los objetivos de nuestra vida, si no los realizamos en un periodo concreto? ¿Acaso tiene algún problema la persona que ha decidido ser padre o madre a los 40? ¿Sufre alguna patología una persona que no se ha enamorado a los 15? La respuesta es clara, ¿no?. Pues... si somos libres para vivir nuestra vida como queremos... ¿por qué no serlo para desarrollar los movimientos?

Nuestro papel es el de observar y el de acompañar y ayudar (no ayudar a moverles, sino ayudarles dándoles compañía en el camino).